



**Arartekoaren ebazpena, 2009ko irailaren 14koa. Horren bidez, elkarte batek Gipuzkoako Foru Aldundiak tutoretzapean dituen adingabe atzerritarrak Debako Oilur Zentrora bidaltzearen inguruan aurkeztutako erreklamazioa amaitutzat ematen da.**

### Aurrekariak

1. (...) elkarteak erakunde honetara jo du eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardueran gabezia batzuk salatu ditu, Debako Endoia auzoko Oilur zentroan dauden babesik gabeko egoeran dauden adingabe atzerritarrekiko arretari dagokionez.

Foru aldundiak zentro berria 2009ko otsailean jarri zuen abian eta bertara Gipuzkoako Foru Aldundiaren tutoretzapean zeuden adingabe atzerritar batzuk bidali zituen. Kexan adierazitakoaren arabera, zentro horretara bidalitako adingabeek egoera eta profil desberdinak zituzten. Batzuk denbora gutxi zeramaten Gipuzkoako babesteko sisteman. Beste batzuk, berriz, denbora gehiago zeramaten eta beste baliabide batzuetan egonak ziren. Hortaz, prestakuntza ikastaroetara joaten ari ziren (Hernaniko, Erreterriako LHI, Peñascal Fundazioa, etab.) eta horietako batzuk bizileku baimena zuten. Ordea, Debara bidali zituztenetik ezin izan dute matrikulatuta zeuden prestakuntza ikastaroetara joan. Salatzen zituzten alderdien artean honako hau zegoen: zentroa eta langileak ez zeudela prestatuta hezkuntzako eta gizarteratzeko zeregina burutzeko eta foru aldundia adingabeen agiriak, alegia, pasaportea, bizileku baimena edo txartelaren berritzea, hala badagokio, izapidetzen ari ote zen ez jakitea.

Horrez gain, esan zuten arreta ematen zieten langileek ez zutela prestakuntza egokia, kalitatezko hezkuntza esku-hartzea eramateko, eta adingabeak jasotzen ari ziren tratua ez zela egokia. Hori dela eta, adingabe batzuk joan egin ziren eta kalean ari ziren bizitzen. Ildo horretan, adierazi zuten adingabe batzuk fiskaltzari tratu txarren egoeraren berri eman ziotela. Horrez gain, adingabeak zentroa borondatez uzten zuela zioen agiri baten sinadura aipatzen zuten.

2. Erakunde honetako langileak 2009ko martxoaren 14an zentrora joan ziren gertu-gertutik baliabidearen funtzionamendua eta aldundiaren tutoretzapean dauden babesik gabeko egoeran dauden adingabe horien egoera ezagutzeko. Bisitan instalazioak ikusi zituzten eta zuzendariari, hezitzaileen txandako arduradunari eta hezitzaile batzuei elkarrizketak egin zitzaizkien. Adingabe batzuei ere elkarrizketak egin zitzaizkien.





Bildutako informazioak zentroaren funtzionamendua, une hartan zeuden adingabeak, proiektuko arduradunek langileei emandako jarraibideak, borondatezko bajaren agiria, etorkizuneko funtzionamenduari buruzko aurreikuspenak, langileen bajak, dauden agiriak, eskura daude baliabideak, dituen instalazioak, etab. biltzen ditu.

Halaber, Arartekoko langileek maiatzaren 11n berriz ere Debako Oilur zentrorra joan ziren, zentroaren bilakaera ikusteko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak haren funtzionamenduaren inguruan bidalitako informazioa egiaztatzeko. Bigarren bisita horrek honetan zetzan: zentroko zuzendariarekin izandako elkarrizketan, baita goizeko txandako arduradunarekin, hezitzaile batekin eta lau adingaberekin izandakoan ere; gorabeheren liburua berrikustean eta egoitzako instalazioak ikuskatzean.

Ondoren, Arartekoak berriz ere Gipuzkoako Foru Aldundira jo zuen informazio eske, lehenengo informazio eskaeran erantzun ez ziren alderdiei eta bisitak eragin zituen azalpen eta alderdi berriei dagokienez.

Arartekoak bidalitako gaien eta gogoeten inguruan erakunde horrek bisitetan eta erantzunetan bildutako informazioa, erakunde honetan 374/2009 zenbakiarekin izapidetutako espedientean dago jasota.

Hori guztia ikusita, kexan adierazitakoa eta jasotako gogoetetan eta informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu zuri honako gogoeta hauek helaraztea:

### Gogoetak

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak, beste bi aldundiek bezala, egoitza berriak jarri behar izan ditu Euskal Autonomia Erkidegoan zeuden babesik gabeko egoeran zeuden adingabe atzerritarrei arreta emateko. Erakunde honek EAEn adingabe atzerritarren egoerari buruzko ezohiko txostenean –2005. urtea– fenomenoaren egoera eta konplexutasuna aztertu zituen. Espediente honetan kexak hizpide duen gaiaren balorazioa egin eta zentroaren kudeaketari buruz lortutako informazioa aztertu nahi dira. Ordea, ez da egoera horren bilakaeraren jarraipena egin nahi. Aipatutako ezohizko txostenaren jarraipena eta Arartekoak egiten dituen jarduerak –talde horri eragiten diotenak–, Arartekoak Legebiltzarrari aurkezten dion urteko txostenean jasotzen dira, zehazki, adingabeei buruzko atalean. Izan ere, erakundearentzat arreta espezifikoko taldea da. Hori dela eta, atal hori aipatuko dugu. Iruditzen zaigu, bertan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan babesik gabe dauden haurrak eta nerabeak babesteko arreta sarearen bilakaera jaso behar dela.

Haurrak eskubideei lotuta daudela onartzea prozesu berria da, gizakiaren eskubideak onartu eta gerokoa. Aurten 20. urteurrena ospatzen dugu eta horrek adierazten du eskubideei berriki lotu direla. Prozesu horrek nazioarteko



konpromisoak hartu ditu bere gain eta adingabeei eskubideak onartzen dizkien barne araudia onartu du. Horrez gain, botere publikoei laguntzeko eta babesteko betebeharrak ezartzen ditu. Gipuzkoara eta Euskal Autonomia Erkidegora lagunduko dien heldurik gabe iristen diren adingabe atzerritarren etorrera, eskubideen aldarrikapena baino haratago, eskubide horien irismena eta euren izaera "unibertsala" ari da jartzen agerian. Alegia, egiaztatzen den lehenengo kontua honakoa da: oraindik distantzia handiegia dagoela eskubideak arautzen dituen araudiaren, herri-administrazioen betebeharrak aipatzen dituen araudiaren eta Debako Oilur zentroa bezalako zentro batean adingabe atzerritarrei arreta emateko egoeraren artean.

2. Arartekoaren zereginen artean herri-administrazioei legezko betebeharrak gogoratzea dago. Aplikatu beharreko araudiak herri-administrazioei babesik gabe dauden adingabe atzerritarrei arreta ematera eta babestera behartzen die. Hirugarren herrialdeetako bakarrik dauden adingabe nazionalak buruzko 1997ko ekainaren 26ko ebazpenaren arabera –ebazpen hori Europar Batasuneko Kontseiluarena da-, halakotzat joko dira -1.1 artikulua: *“Estatu kideetako lurraldera eurez arduratuko den heldurik gabe –dela legez edo erabilera eta ohituren arabera- iristen diren hirugarren herrialdeetako 18 urtetik beherako adingabeak, eurez arduratuko den heldu baten arretaren pean ez daudenean; baita hirugarren herrialdeetako adingabe nazionalak ere, hain zuzen, estatu kideetako lurraldetan sartu ondoren, bakarrik uzten direnak”*.

Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta euren gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoak tutoretzapean dauden adingabe atzerritarren bizilekua baimentzen du, adingabearen interes nagusiaren printzipioa betez, bere familiarekin edo jatorrizko herrialdera itzuli ezin duela egiaztatzen bada.

3. **Adingabearen interes nagusiaren printzipioak botere publiko guztiak lotzen ditu.** Adingabearen interes nagusia kontzeptu juridiko zehaztugabea da. Bertan, zehaztasun edo ziurtasun eremua adingabeei onartutako eskubideek osatzen dute. Printzipio horrek erakunde pribatuak ere lotzen ditu. Printzipio hori aplikatzeak, erakunde publikoek zein pribatuek hartzen dituzten erabaki guztietan, adingabearen interes nagusia lehen mailakoa izatea dakar, tartean den beste edozein eskubide legitimoren gainera. Printzipio horrek beren eskubideak onartzea eta babestea dakar, adingabearen izaeraren garapen osoa eman dadin. Hau da, bere duintasuna, askatasuna, osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, hezkuntzarako eskubidea, osasunerako eskubidea, entzun diezaioten duen eskubidea... eta bere gizarteratzea ahalbidetuko duen baldintzak sustatzea. Interes nagusia zehaztean, adingabea tartean egon beharko da eta parte hartu beharko du, protagonista aktibo gisa. Horregatik, beharrezkoa da adingabeari entzutea, bere iritzia aintzat hartzea eta bere interesari lehentasuna ematea. Hori guztia adierazten dituen nahiekin bat etor daiteke edo ez.





Espediente honen izapidetzean, entzun diezaioten duen eskubideari eta hezkuntzarako eskubideari arreta berezia eman zaie. Adingabeei onartutako eskubideak nazioarteko testu batzuetan daude jasota, besteak beste, Haurren Eskubideen Konbentzioa (HEK) eta barruko mailan, berriz, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoa –horren bidez partzialki aldatu ziren Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea-; gure erkidegoan, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea. Araudiak 18 urtetik beherako adingabeen eskubideak –jatorria edozein dela ere- babesteko betebeharra ezartzen du.

4. **Adingabe guztiek eskubidea dute, daukaten adin eta heldutasunaren arabera, entzun diezaioten.** Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak eurak tartean dituzten edozein gairi buruz duen iritzia libreki adierazteko eskubidea onartzen die eta estatuei eskubide hori bermatzeko betebeharra ezartzen die, bereziki administrazioko edo justiziako prozeduretan (HEK 12. art.). Adingabeen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoko 9.1. artikulua honakoa xedatzen du: *“Adingabeak eskubidea du, esateko duena entzun dakien, hala familiaren barruan nola administrazio edo epai prozedura orotan, baldin eta prozedura horiekin zerikusi zuzena badu eta prozedura horietan erabakitzen denak bere egoerari edo bere familia edo gizarte inguruneri eragin badiezaioke”*. 3/2005 Legeko 16. artikulua norbanakoari entzuteko eskubidea bermatzen du. Konstituzio Auzitegiak, 2008ko abenduaren 22ko epaian, 3319/2009 babes errekurtsua, eskubide horren urraketa aztertzen du eta adingabeek dituzten eskubideak nabarmentzen ditu –iritzia edukitzeko gai izatea, eragiten dieten prozedura judizial edo administratibo orokotan entzunak izateko eskubidea, dela zuzenean edo ordezkari edo egokia den organoaren bidez–.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, eskubide horren betetzeari dagokionez, honakoa erantzun du: adingabeak txandako arduradunarengana edo zentroko zuzendariarengana jo dezaketela. Kontua da ez dagoela jasota adingabeari entzun ote zioten Oilur zentrori bidali zutenean, ezta Oilur zentroan arreta emango zien eta entzungo zien erreferentziazko tutorea esleitu ote zitzaizen ere. Adingabearen jarreraren inguruan bidalitako txostenek ez dute haren iritzia eta gertakarien azalpena biltzen.

5. Oilur zentrori egin ditugun bisiten ondoren, foru aldundiari behin eta berriro esan diogu **prestakuntza jardunik ezaren eta jardueraren bat egiteko aurreikuspenik** ezaren inguruan kezkatutako gaudela. Nerabearoa bezalako aroan jarduerarik ez izatea eta landa eremu batean isolatzea ez zirudien Debako zentrori bidalitako adingabeen premia zehaztetara egokitzen zen eta horien garapen pertsonala eta gizarteratzea lagunduko duen jarrera aldaketa susta zezakeen neurria zenik.





lido horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak esan du hezkuntza eta komunitatearen baliabideetarako sarbiderik eza euren jarrera aldatzea xede duen behin-behineko baja dela. Bidalitako erantzunaren arabera, hezkuntza jarduerak behin-behinean etetea eta isolamendua adingabe horiek aurkezten dituzten jarrera arazoan aurrean neurri egokiak dira: *“Jarrerak aldatzeko testuinguru horretan, aipatutako zentroan, beste zentro espezializatu batzuetan bezala – hala nola, terapeutikoak-, hartzen den lehenengo neurria inguruarekin harremanak etetea da, hezkuntza baliabideak behin-behinean bajaran ematea barne hartuz”*.

Foru aldundiak ez zuen ezer aurreikusi adingabe horientzat denbora batean, hain zuzen, otsailetik irailera bitartean, erantzunari jarraiki. Azken erantzun horretan aipatu dute uztailen kirol jarduerak eta gaztelaniako eskolak ari zirela burutzen eta irailerako jarduerak aurreikusita zituztela.

Hezkuntzarako eskubidea adingabeei nazioarteko makina bat testutan eta barne ordenamenduan onartu zaien eskubidea da: Nazio Batuen Batzar Nagusiaren Eskubideen Deklarazioko 26. artikulua; Espainiako Konstituzioko 27. artikulua; 1952ko martxoaren 20ko Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak babesteko Hitzarmeneko Protokolo Gehigarriko 2. artikulua; Adingabeen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoko 10.3. artikulua; Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Ituneko 13. artikulua; eta haurren eskubideei buruzko Europako Gutunaren 20.1. printzipioa. Euskal Autonomia Erkidegoko araudiari dagokionez, berriz: 3/2005 Legeko 22., 23., 24. eta 25. artikulua; Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saileko uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuko 72. artikulua, babesik gabe dauden haurrentzat eta nerabeentzat egoitza-harreraren baliabideak arautzen dituenak. Eskubide hori ez da ez nazionalitatearen ez jarrera egokiaren mendeko.

Atzerritarrek oinarrizko giza eskubideen titularrak dira. Legegileak, titular diren gainontzeko eskubideei dagokienez, baldintzatzaile osagarriak ezarri ditzake, betiere, preskripzio konstituzionalak errespetatuz. Adingabeen babes juridikoari buruzko lege organikoak eta haurrak eta nerabeak babesteko euskal legeak adingabeen eskubideak arautzen dituzte eta adingabeak Konstituzioak, sinatutako nazioarteko itunek, besteak beste, Nazio Batuen Haurren Eskubideen Konbentzioak –inolako diskriminaziorik gabe-, onartzen dizkieten eskubideen titularrak direla ezartzen dute.

Konstituzio Auzitegiak, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoko manu batzuen aurkakako errekursoetan (2007ko azaroaren 7ko eta 2007ko abenduaren 19ko epaiak), honako hauek gogoratzen ditu: doktrina konstituzionala, atzerritarren oinarrizko eskubideen titulartasunari dagokionez, legegileak horiek arautzen dituen mugak eta Espainiak Giza Eskubideen alorrean sinatutako itunek eta hitzarmenek duten irismena. Hezkuntzarako eskubideari dagokionez, Konstituzio Auzitegiak azaroaren 7ko 236/2007 epaian



konstituziokontrakotzat jo zuen atzerritarren eskubide eta betebeharrei eta gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoko 9.3. artikuluko "egoiliarak" aipamena, abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoko 7. puntuko 1. artikulua emandako idazketan (8. oinarri juridikoa).

*"Por otra parte, también de las disposiciones examinadas y de su recta interpretación se obtiene que el derecho a la educación garantizado en el art. 27.1 CE corresponde a 'todos', independientemente de su condición de nacional o extranjero, e incluso de su situación legal en España. Esta conclusión se alcanza interpretando la expresión del art. 27.1 CE de acuerdo con los textos internacionales citados, donde se utilizan las expresiones 'toda persona tiene...', o 'a nadie se le puede negar...' el derecho a la educación. Según se ha visto, el acceso a los establecimientos escolares y el derecho a utilizar, en principio, los medios de instrucción que existan en un momento determinado, debe garantizarse, de acuerdo con el art. 1 CEHD, 'a toda persona dependiente de la jurisdicción de un Estado contratante'."*

Beraz, Konstituzio Auzitegiak eskubidearen edukia eta botere publikoen betebeharren irismena desberdintzen ditu. Hauxe esanez amaitzen du: *"La inequívoca vinculación del derecho a la educación con la garantía de la dignidad humana, dada la innegable trascendencia que aquella adquiere para el pleno y libre desarrollo de la personalidad, y para la misma convivencia en sociedad, que se ve reforzada mediante la enseñanza de los valores democráticos y el respeto a los derechos humanos, necesarios para establecer una sociedad democrática avanzada, como reza el Preámbulo de nuestra Constitución."*

Botere publikoen betebeharren irismenari dagokionez, honakoa dio: *"De las disposiciones constitucionales relativas al derecho a la educación, interpretadas de conformidad con la Declaración Universal de Derechos Humanos y los Tratados y acuerdos internacionales referidos, se deduce que el contenido constitucionalmente garantizado de ese derecho, en su dimensión prestacional, no se limita a la enseñanza básica, sino que se extiende también a los niveles superiores, aunque en ellos no se imponga constitucionalmente la obligatoriedad y la gratuidad."*

Alegia, ez da mugatzen oinarritzko hezkuntzaren ematea. Are gehiago, guztion hezkuntzarako eskubidea bermatu behar da botere publikoek egin behar duten irakaskuntzaren programazio orokor baten bidez.

Aurrerago, hauxe dio: *"En conclusión, el contenido constitucionalmente declarado por los textos a los que se refiere el art. 10.1 CE del derecho a la educación garantizado en el art. 27.1 CE incluye el acceso no sólo a la enseñanza básica, sino también a la enseñanza no obligatoria, de la que no pueden ser privados los extranjeros que se encuentren en España y no sean titulares de una autorización para residir. El precepto impugnado impide a los extranjeros menores de dieciocho años sin autorización de estancia o residencia"*





*acceder a la enseñanza secundaria postobligatoria, a la que sin embargo pueden acceder, según la legislación educativa vigente, aquellos que hayan obtenido el título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria, normalmente a la edad de dieciséis años. Ese derecho de acceso a la educación no obligatoria de los extranjeros menores de edad forma parte del contenido del derecho a la educación, y su ejercicio puede someterse a los requisitos de mérito y capacidad, pero no a otra circunstancia como la situación administrativa del menor."*

Azken batean, Konstituzio Auzitegiak guztioi onartzen digu -jatorria edozein dela ere- hezkuntzarako eskubidea eta adierazi du hezkuntzarako sarbidea ezin zaiela mugatu adingabe atzerritarrei, bizileku baimena ez eduki arren. Hezkuntzarako sarbideari ezarri ahal zaizkion muga bakarrak merezimendu eta gaitasun baldintzetan oinarritutakoak dira.

6. Administrazioaren jarduna –eskubide horri dagokionez- xedatzen duen lege esparrua eta jurisprudentziakoa azaldu den moduan ezarri ondoren, beharrezkoa da Gipuzkoako Foru Aldundiko erabakiaren, alegia, zentroan prestakuntza jardueren izatea bertan hartutako adingabeen jarrera aldaketaren mendekoa izatearen, egokitasuna aztertzea.

Horrek hezkuntzarako eskubideari ekartzen dion mugatzea ez da hezkuntza alorrean administrazio eskudunaren erabakiaren ondoriozkoa edo merezimendu edo gaitasun irizpideak direla-eta ezin matrikulatzearen ziozkoa. Izan ere, adingabe horietako asko 2008-2009 ikasturtean matrikulatuta zeuden. Aipatutakoa adingabeen arduradun gisa Gipuzkoako Foru Aldundiaren erabakiaren ondorioz izan da, hain zuzen. Adingabeak ez zituzten prestakuntza zentroetatik kanporatu beren hezkuntza ibilbidearekin zerikusia zuten arrazoiengatik. Kaleratzeko arrazoia hauxe izan zen: 2008-2009 ikasturterako matrikulatu zitzairen Lanbide Hastapenentarako Ikastegira etortzeari uztea. Ildo horretan, txosten batzuk daude eta, bertan, aipatzen da Hernaniko LHIk eta Peñascal Fundazioak Debara bidali izanaren inguruko informaziorik ez zutela izan. Horrez gain, Bidasoako eta Errenteriako LHIko matrikula ziurtagiriak daude. Erakunde honek agiri horiek guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali zizkion. Erantzuna aipatutakoa izan zen, hau da, ingurunearekin harremanak eteteko neurria hartzeko egokitasuna.

Foru aldundiari 40 adingaberi buruzko informazioa eskatu genion eta 26 gazteri buruzkoa bidali digu. Txosten horiek egoitzak (Urgatzi taldea, Bide Berri eta Dianova elkarteak) kudeatzen dizuten hezkuntza talde batzuk egin dituzte, egoitza baliabidearen aldaketa proposamena sustatzeko. Txostenek, funtsean, elkarte batek kudeatutako egoitza batetik bestera aldatzea justifikatzen duen adingabearen jarrera dute hizpide. Foru aldundiak ez du adingabe guztiei buruzko txostena bidali. Ordea, esan du Zarautzik alde egin zutenen kasuan edo Ibaiondoko neurriren bat betetzetik atera zirenak, zuzenean, Oilur zentrori bidali zirela. **Alegia, hasieran behintzat zentro horretara bidaltzeko irizpideak jarrerako**



**edozein arazorekin zuen zerikusia, baita erreforma zentroren batean barneratze neurria beteta izandako kasuan ere.** (Irizpide hori, bidalitako informazioari jarraiki, berriki aldatu egin da lbaiondotik datozen adingabeen kasuentzat).

3/2005 Legeko 80.3 artikulua egoitza-harrerako zentro batean bizi diren haurren eta nerabeen betebeharrak ezartzen ditu: *"Harrera-egoitza batean harrera eman zaien hurrek eta nerabeek, egoiliarak diren aldetik, betebeharrak hauek edukiko dituzte:*

- a) Egoitzako funtzionamendu eta elkarbizitza arauak errespetatu eta betetzea.*
- b) Egoitzan lan egiten duten edo bizi diren pertsona guztien duintasuna eta eginkizuna errespetatzea.*
- c) Beren prestakuntzarako jarduerak, eskolako jarduerak, lanekoak edo zeinahi eratakoak egitea.*
- d) Haien eskura jartzen diren instalazio eta baliabide materialak era egokian erabiltzea.*
- e) Ezartzen zaizkien heziketa-neurri zuzengarriak betetzea, hurrengo artikuluan xedatutakoaren eredura.*
- f) Gaixoaren Autonomia eta Informazio eta Dokumentazio Klinikoko 41/2002 Lege Oinarrizkoak ezarritakoari jarraituz, beharrezkoak diren arloko Eskubide eta Betebeharrak Arautzen dituen azaroaren 14ko osasun azterketa eta -proba guztiak egitea, bai adingabeak berak bai egoitzan bizi diren edo lan egiten duten gainerako pertsonen duten osasun-eskubidea bermatzeko."*

81. artikulua hezkuntza neurri zuzentzaileen izaera eta edukia arautzen du:

*"Aurreko artikuluan ezarritako betebeharrak bete ezean, heziketa-neurri zuzengarriak ezarriko dira. Neurri horien edukia eta eginkizuna hezteko izango da, eta ezingo dute ezarri, ez zuzenean ez zeharka, ez gorputz-zigorrik, ez elikagaiak ukatzerik, ez senitartekoen ikustaldia jasotzeko eskubidea kentzerik, ez ahozko nahiz idatzizko komunikazioetan esku-hartzerik, ez nahitaezko hezkuntzarako, ez eta osasun-arretarako eskubidea kentzerik ere; ezta adingabeen duintasunaren aurkako erasorik ere. Kode Zibilak 154 eta 268. artikuluetan gurasoei edo tutoreei ezartzen dien zuzentzeko eginkizunean oinarritzen dira neurri hauek.*

*Heziketa-neurri zuzengarriak ezartzea eragin dezaketen jokabideak, neurri horien edukia eta neurriok ezartzeko jarabideak, horiek guztiak, zentroen erregelamendu-garapenaren esparruan arautu beharko dira -78. artikuluan aipatzen da garapen hori-. Arau horietan adingabeen eskubide hauek aurreikusi beharko dira: entzunak izateko eskubidea, frogak aurkezteko eskubidea, eta berek izendatutako pertsonen aholkua jasotzeko eskubidea. Ezarritako neurriak, bestalde, erregistro batean idatziko dira, bai neurria ezartzea eragin zuen jokaera edo gertaera bai neurriak aplikatzeko orduan izandako inguruabarrak zehaztuta."*





131/2008 Dekretuak bizikidetasun ereduak (95. artikulua), hezkuntza neurri zuzentzaileek aztertu ahal izango dituzten jarrerak edo ez betetzeak (96. artikulua), prozedura eta ezarri beharreko neurri zuzentzaileak (97. artikulua eta hurrengoak) arautzen ditu. Aurreko araudiak jarrera disruptiboetara aurre egiteko modua ezarri du.

Ordea, araudi horrek ez du aurreikusita nahitaezko hezkuntzarako eskubidearen eta ikastetxera joatearen gabetzea. Adingabeek ezin izan zuten jarraitu matrikulatuta zeuden ikastetxeetara joaten. Izan ere, euren tutoreak landa eremuan zegoen egoitza baliabide batetara bidali zituen eta ez zuen ez garrariorik ez beste hezkuntza jarduera aukera batzuk aurreikusita. Adingabe baten tutoreak adingabea hezteko eta prestakuntza integrala emateko betebeharra dauka (Kode Zibileko 269. artikulua). Hezkuntzak ez du bakarrik ezagutzak transmititzea, prestakuntza intelektuala edo lanbide gaitasunen prestakuntza hizpide. Horrez gain, euren nortasuna garatzea eta balioen hezkuntza ditu hizpide –Espainiako Konstituzioko 27.2. artikulua-. *“Giza nortasuna oso-osorik garatzea da hezkuntzaren helburua, betiere bizikidetasunaren printzipio demokratikoak, eta oinarrizko eskubideak eta askatasunak errespetatuz”*. Hezkuntza jarduerarik aurreikusita ez edukitzeak hezkuntzarako eskubidea urratzen du.

Adingabe horien jarrerak ez dute araudian ezarritako hezkuntza neurri zuzentzaileerik eragin. Neurria Oilur zentrorara eramatea izan da. Txostenek ez dute adingabeak edo tratamendu espezifikokoak eskatzen duen banakako esku-hartzea aipatzen. Ordea, Debara bidali baino lehen zegoen egoitza baliabidean adingabearekin bizitzeak zeukan zailtasuna dute hizpide. Foru aldundiak dio eramatearen arrazoia hau dela: adingabeek euren eskura jarritako baliabideak ez dituztela aprobetxatu.

- 7 Jarrera arazoak dituzten adingabeak programa espezializatu batetara bidaltzeko erabakia araudian ezarrita dago. 131/2008 Dekretuak **programa espezializatura bidaltzeko ezarrita dagoen prozedura** arautzen du -4.2.2. b) artikulua-. Hori jarrera disruptiboak dituzten adingabeentzako programa espezializatua da.

*“Programa esku-hartze intentsiboa eta integrala izango da, batez ere arlo pertsonalean oinarritutako gizaritea hezkuntza-arloko orientazioa eta/edo orientazio terapeutikoa emateko, haurren eta nerabeen jarrerak aldatzea eta gizarteratzeko prozesua erraztuko duten bizikidetzara-erak hartzea sustatzeko. Programa horren intentsitatea eta aplikatuko diren baliabide mota kasu bakoitzaren premietara eta larritasunera egokituko dira. Aldi baterako izango da, bere helburua ondoren 2.2.a) idatz-zatian aurreikusitako programa espezializatuan, edo, hala badagokio, oinarrizko programa orokorrean, emantzipaziorako prestatzeko programan edo emantzipazio-programan sartzeko aukera izatea da.”*



Programa horiek Euskal Autonomia Erkidegoko egoitza baliabide batzuetan ari dira garatzen. 131/2008 Dekretuak egoitzek eta programek bete behar dituzten baldintzak arautzen dituzte. Beraz, ezaugarri horiek dituen programa bermekin abian jartzeko aukera ematen duen esperientzia eta arauak badaude.

Ordea, Debako Oilur zentroan garatzen den programak ez zuen prestakuntza, hezkuntza, asialdi jarduerarik eta jarduera terauperetikorik aurreikusi. Hartutako neurri bakarra langileak kontratatzea eta adingabeekin egoteko txandak ezartzea izan da. Kontratatu diren langileen profila, langileen bajak eta langileek beren lanarekin amaitzea, adingabeentzat erreferentziatzko tutorerik ez egotea... ez datoz bat ezaugarri horietako programa bat abian jarri baino lehen eduki behar diren aurreikuspenekin. Programok talde irmoa, esperientzia duen zuzendaritza, instalazioak –egokiak- behar dituzte, araudian ezartzen denari jarraiki. Hortaz, ez da *"izaera trinko eta integraleko esku-hartzea, funtsean, eremu pertsonala oinarri duen gizarte-hezkuntzako orientazioa edota orientazio terapeutikoa duena"* dioena betetzen [4.2.2 b) artikulua]. Zentroko zuzendariari eta foru aldundiari hezkuntza egitasmoari, bizikidetasun arauari buruzko agiriak eta zentroaren funtzionamenduarentzat beharrezkoak diren bitartekoak lortzeari buruzko informazioa –erregistroa, gorabeheren liburua, etab.- eskatu diogun arren, ez zaigu eman. Foru aldundiak bakarrik esan digu etorkizunean hezkuntza neurri zuzentzaileen erregistro bat eta EBEHE (Ebaluazioa Sistema eta egoitza-harreraren erregistroa) abian jarriko dituztela. Zentrora joan ginen bigarren bisitaldian, gorabeheren liburu bat baino ezin izan genuen ikusi eta sukaldean oso oinarritzkoak diren bizikidetasun arauak aipatzen zituen orri bat zegoela egiaztatu genuen.

Foru aldundiak, emandako erantzunean, esan du euren ustez adingabe horien isolatzea lehenengo fasea dela, hau da, adingabe horientzat neurri egokia dela, eta 131/2008 Dekretuak ezartzen duela. Adierazi dugun moduan, administrazioek adingabearen interes nagusiaren alde jardun behar dute. Beraz, neurri hori ikuspegi horretatik baloratu behar da. Ildo horretan, foru aldundiak dio isolamendua, bai fisikoa –landa eremuan kokatua egoteagatik- bai gizartekoa –komunitateko egoitzan bisitak eta jarduerak eteteagatik- araudiko 43., 74. eta 77. artikuluetan eta 131/2008 Dekretuan ezarrita dagoela. 131/2008 Dekretuko 43. artikulua ezartzen du programa horiek ez dutela zertan biztanleria nukleoan integratuta egon behar, 43.1 a) artikulua: *"Nahitaezkoa izango da zentroak berak edo hura menpekoa den erakunde publikoak edo pribatuak garraio bide alternatibo bat jartzea hurbilen dauden komunitate-zerbitzuetara joateko."*

Kasu honetan, ez da garraio bide aukerarik eman. Adingabeek ezin zuten atera. Beraz, hala egin badute, euren kabuz izan da eta, ondorioz, zentroan bajan emateko prozedura eta tutoretza eteteko prozedura hasi da. Horrez gain, Ertzaintzan desagerpenaren salaketa jarri da, horrek euren polizi historialetan dakarrenarekin. Gainera, bisitak eta komunitateko baliabideen erabilera etetea - 131/2008 Dekretuko 74.2. eta 77. artikulua - Banakako Esku-Hartze Planean justifikatutako egon beharko da. Bertan, neurri horren iraupena ezarrita egon



beharko da. Egonaldiaren iraupenari eta bere etorkizunari buruz ezer ez jakiteak jarrera aldaketaren motibazio oro zapuztu dezake. Aldaketa hori da, hain zuzen, programaren xedea.

Programa horretan gehitzeak aurretik aukeraketa eta irizpide batzuen betetzea dakar (131/2008 Dekretuko 5. eta 7. artikulua). Hezkuntza taldeek egindako txostenek ez zituzten betetzen baliabide mota aukeratzeko araudian ezarritako irizpideak. Horrez gain, 131/2008 Dekretuak xedatzen du egoitza-harrerak 8. artikuluan ezarritako printzipioak bete behar dituela eta eskubideak errespetatu behar direla eta II. tituluan jasotako betebeharrak bete behar direla.

Arau ezarpen horiek guztiak ez dira aintzat hartu baliabidearen hasieran behintzat.

8. Adingabeen jarrera disruptiboak gizarteratze normalizatu baterako bidea emango duten jarduera zehatzak eskatzen ditu. Psikologian, pedagogian eta buruko osasunean emandako aurrerapenen arabera, haurtzaroan arazoak edukitzeak gizarteratze zailtasunen jarrera asko eta asko azaltzen ditu. Berme nahikoekin eta eskubideekiko errespetuarekin esku-hartze proposamenetan ere aurrera egin da. Programa horiek ezin diote honako honi uko egin: bizikidetasunak oinarri dituen errespetu balioak adingabeei transmititzea. Era berean, pertsona baten nortasuna eta heldutasuna eratzeko hain funtsezkoa den zerbait eskatzen jarraitu behar dute, alegia, beren ekintzen erantzukizuna euren gain hartu behar dute. Horrez gain, hauxe ere ahalbide beharko litzateke: adingabeek eurekin (substantzia toxikoak) eta gizartearekin (delituak) duten arazoa lan dezatela, autoestimua lan dezatela, beren jarrera gizarteratzera eta laneratzera bideratzeko motibazio nahikoa bilatzen lagun dezatela eta ezagutza akademikoak, lanbide eta gizarte gaitasunen ezagutzak eta balioen hezkuntza edukitzeko aukera izan dezatela.

Nolanahi ere, Herriaren Defendatzaileak jarrera nahasteak dituzten eta gizarte zailtasun egoeran dauden adingabeen babes zentroei buruzko 2009ko txostenean adierazi duen moduan, nerabe horiei honako hau erakutsiko dien esku-hartze eredua ezarri behar da: *“Manejar adecuadamente su agresividad, que fomente su sentido de pertenencia al grupo, que les ayuden a salir airosos de situaciones adversas, orienten su rebeldía de forma creativa, y les permitan recuperarse para la vida y afrontar su futuro en el fatídico guión de destructividad/ autodestrucción en el que tan a menudo se mueven estos menores y que poco o nada tiene que ver con su biología y sí mucho con las dramáticas autobiografías y las durísimas condiciones del entorno en que, la mayor parte de las veces, han crecido”.*

9. Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali genion bigarren idazkian, Oilur zentroan zentro hori ireki zenetik bisita egin arte bertan egon ziren adingabeen –guztira 40- informazio zehaztua eskatu genion. Ildo horretan, foru aldundiak 36 gazteri



buruzko informazioa bidali digu. Aldundiak 36 adingabe horietako 22ri tutoretza eten zien, 2ri adinez nagusiak izateagatik. Gainontzekoei dagokienez, ez du arrazoirik aipatu, nahiz eta adingabeak egoitza ihes egitea aipatzen duen – irteerak egiteko baimenik ez duenean-. Foru aldundiak adingabeak ez daudenean jarraitzen den prozedurari eta tutoretza eteteko prozedurari buruzko informazioa bidali digu. **Adingabea desagertzeagatik tutoretza etetea ez dago araudian aurreikusita.** 3/2005 Legeko 62. artikulua ezartzen du tutoretza honako hauengatik eten ahal izango dela:

- a) *“Adin-nagusitasunera iristea edo emantzipazioa eskuratzea, salbu eta aldezturik ez bada ezgaitua izan epai bidez.*
- b) *Adingabeari adin-nagusitasunaren onura esleitzea.*
- c) *Tutoretza ezartzea eragin zuten arrazoiek indarra galdu dutela eta, administrazio-ebazpena ematea tutoretza bertan behera uzteko.*
- d) *Administrazio-ebazpena tarteko, adingabea beste babes-erakunde baten esku uztea. Horrelakoetan, entzun egin behar zaio aldezturik adingabeari eta, ahal dela, joango den leku horretan arreta eta babes neurriak egokiak direla egiaztatuko da.*
- e) *Epailaren ebazpen irmoaren bidez, adopzioa edo tutoretza arrunta ezartzea, edo babesgabezia-egoera amaitu dela adieraztea.*
- f) *Tutoretzapean dagoen pertsona hiltzea.”*

Egoitza joatea ez da tutoretza eteteko arrazoiak. Erakunde honen ustez, Debara bidalitako adingabeen Oilur zentroko joatearen eta programa hori abian jartzeko baldintzen artean lotura bat dago.

Bakarrik dauden adingabe atzeritarrei arreta emateak duen zailtasunetako bat da estatuetako egoitza batzuetan jada egon direla eta eskumena duten administrazioek babesteko betebeharraren inguruan duten ikuskera eta etika desberdinak direla. Arazo horrek ez zien eragiten Debako adingabe gehienei. Izan ere, horiei Gipuzkoako Foru aldundiko egoitza batzuetan arreta luzaroan eman zitzaizkien.

Oilur zentroa abian jartzeak ondorio batzuk izan ditu, programaren emaitzen adierazgarri direnak: gutxienez, 20 adingaberi eten zaie tutoretza; adingabe horien ihesengatik, lapurrengatik eta beste delitu jardura batzuegatik makina bat polizia eginbide ireki dira. Jarduerok oso larriak dira pertsonen ondasunei eta eskubideei eragiten dietelako eta bizikidetasuna eta gizarte kohesioa kaltetzen dutelako.

Taldearen irudia hondatu egin da, Donostiako Kriminologiaren Euskal Erakundeak egindako “EAEn, Hezkuntza Esku-hartzearen Ebaluazioa eta Adingabeen Justizian Berrerortzearen Análisiari” buruzko azterlanaren ondorioak gorabehera. Azterlan horretan, hutsegite bat egin duten adingabeen jatorrizko herrialdearen datua ez da esanguratsua.





Erakunde honentzat oso larria da Gipuzkoako Foru Aldundiaren tutoretzapean arrazoizko denbora zeramaten adingabeak babesik gabeko egoeran egotea eta, Debara bidali ondoren, kalean bizi zena. Baita egin dituzten delituengatik eman den gizarte alarma ere. Garrantzitsua da gogoratzea tutoretza eteteko foru agindua eman izanak ezin duela saihestu Gipuzkoan babesik gabeko egoeran dauden adingabeen inguruko betebeharra. Araudiak bakarrik dauden eta erreferentziatzeko heldurik ez duten adingabeen tutoretza bere gain hartzera behartzen dio foru aldundiari.

Baliabidearen zailtasunak islatzen dituen beste elementu bat honakoa da: erakunde honek, orain arte, nerabe eta gazte horiei eragiten dien zazpi kexa-espeditente eta Debako herritar baten kexa bat izapidetu dituela.

Horregatik guztiagatik, erakunde honek zentroa martxan egon den hilabete horietan foru aldundiari gogoeta egiteko eta hartutako neurriei buruzko ebaluazioa egiteko beharra helarazi dio.

10. Hartuta zeuden harrera etxeetan jarrera arazoak izateagatik neska adingabe batzuk Oilur zentrori bidaltzeari dagokionez, erabaki hori ez da eman aipatutako adingabeen interes nagusia aintzat hartuta.

Lehen esan dugun moduan, ez dugu hezkuntza egitasmoaren eta erakundearekin sinatutako hitzarmenaren berri izan. Beraz, ez dakigu zentroak bi sexuei arreta emango ote dien. Nolanahi ere, bi sexuetakoa nerabeei arreta emateak neurri espezifikoak -hala nola, emakumezko langileak hezkuntza langileen artean- eta egoitzara joan ginenean ikusi ez genituen pribatutasun esparruak eskatzen ditu.

Adingabearen interes nagusiaren printzipioak bere eskubideekiko errespetua eta bere premia zehatzak kontuan har daitezela dakar, neskatila eta neska nerabeen kasuan. Oilur zentrori euren entzun gabe eta hezkuntza neurri zuzentzaileen inguruko araudia edo programa espezializatu batetara bidaltzea arautzen duen araudia aplikatu gabe Oilur zentrori bidaltzeak, epe laburrean jatorrizko egoitza baliabidean hezkuntzako langileekin bizikidetasuna "konpon" dezake baina ez da horien interes nagusiaren alde hartutako erabakia. Adingabe horiek egoitzatik berehala joan ziren. Horren ondorioz, biktima izan ahal diren eraso mota ororen aurrean eta, bereziki, Zigor Kodeko 188. artikuluan ezarritako esplotazio sexualaren aurrean, ahulezia bereziko egoeran daude.

Indarrean dagoen araudiaren helburua ez da egoitza baliabideetako bizikidetasun arazoak konpontzea, haurrak lagundu eta babestea baizik, 3/2005 Legeko 1. art.: *"Lege honen helburua da haurrak eta nerabeak zaindu eta babestea, bermea eskainiz beren eskubideak erabili eta erantzukizunak bete ahal ditzaten. Zehazki esanda, hauek dira helburuak:*



- a) *Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean egoiliarak zein pasadizokoak diren haur eta nerabeei hau bermatzea: Konstituzioak, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak, Haurren Eskubideen Europar Gutunak eta zuzenbide-antolamendu osoak ezagutzen dizkieten eskubideak erabili ahal izango dituztela.*
- b) *Haurren eta nerabeen eskubideak eta ongizatea sustatzeko jarduerak edo haiek zaintzeko eta babesteko esku-hartzeak zein esparrutan egin behar diren ezartzea, haurrek eta nerabeek familiaren eta gizartearen inguruneetan behar duten garapena bermatzearen.*
- c) *Babesgabezia-egoeran edo arrisku-egoeran dauden haur eta nerabeak babesteko arloan eta arau-hausle adingabeekin egin behar diren esku-hartzeen arloan jarduteko printzipioak zehaztea, bai eta eginkizun horretan eskumenen eta erakundeen esparrua mugatzea ere."*

Foru aldundiak ez dio erantzun lehen idazkian egin genion eta bigarrean errepikatu genuen eskaerari. Debara bidalitako adingabeei buruzkoa zen, beren eskolatze, egoera administratibo eta erroldatzearen gainekoa. Urgatzirekin dagoen hitzarmenaren kopia ere ez digute helarazi, edo hezkuntza proiektua ere ez, adierazi dugun bezala. Oso adierazgarria da adingabeen eskubideei eragiten dieten gai oso zehatzei buruzko informazio eskaerari ez erantzutea. Nahia Gipuzkoako Foru Aldundiak adingabe horiei eskolara joateko aukera eman ote zien, egoera administratiboa erregularizatu ote zuen eta adingabe horien izena erroldan eman ote zuen jakitea zen. Halaber, Oilur zentroan burutuko ziren jardun eta programak ezagutu nahi genituen, baita Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Urgatzi Elkarteak hartutako konpromisoak ere. Gai horiei guztiei erantzunik eman ez izanak garrantzi handia dauka erakunde honek Oilur zentroan kudeatzen den programaren gainean duen balorazioan eta txosten honetan.

11. Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartu ditu nazioarteko konpromisoak eta giza eskubideetan eta haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko arloan eman diren urratsak, 3/2005 Legearen bidez. Badugu ere babesik gabeko egoeran dauden adingabeentzako egoitzen baliabide material eta funtzionalen araudi erregulatuak. Administrazioa bete-betean legearen eta zuzenbidearen mende egotea gure gizartearen oinarritzko printzipioa da.

Baliabideetan dauden bizikidetasun arazoak arrazoi ugariengatik izan daitezke, adingabekoen jarreraz gain. Askotan elkartearen kontratazio baldintzekin lotuta dago, kontratatutako langileen profilarrekin, hezkuntza egitasmoarekin... Foru aldundiak egoitza baliabideen ebaluazioa egiteko eskumena dauka, 131/2008 Dekretuko 9. artikulua. Foru aldundiak adingabe batzuen jarrerari buruzko txostena bidali du. Horietan ez dute aipatzen Oilur zentrori bidalitako adingabeak zetozen egoitzaren ebaluazioaren erreferentziarik.







Erakunde honen aburuz, egoitzetan dauden bizikidetasun arazoentzako konponbidea bideratzeko ezin da adingabea Debako Oilur zentroa bezalako toki batera bidali bakarrik, beren eskubide eta beharrak aintzat hartu gabe. Garrantzitsua da gogoratzea, adingabeei eragiten dien edozein jardun beren interes nagusiaren alde egin behar dela, 3/2005 Legeko 4. art.:

*“1. Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen zati batzuk ere aldatu zituen lege organikoa da hori), haurren eta nerabeen interes gorena, haien eskubideen babesari eta eskubide horien garapenaren bermea izango dira gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haiei buruz hartzen dituzten erabakien eta gauzatzen dituzten jarduketak guztien oinarritzko printzipio gidariak. Orobat, haur eta nerabeekin zerikusi zuzena duten jarduketak publiko guztietan aintzat hartuko dira printzipio horiek, eta, zehazki, epaileek, herri-administrazioetako agintariek edo haur eta nerabeak zaindu eta babesteko erantzukizuna duten erakunde publiko edo pribatuak hartzen dituzten erabaki guztietan.*

*Interes goren hori zer den zehazteko, adingabeko pertsonaren beharrian eta eskubideei begiratuko zaie lehenik, eta hark adierazitako iritzia eta nahiak kontuan hartuko dira, nahikoa ezagumen duenean; orobat, aintzat hartuko da hark familiaren eta gizartearen esparruan duen izaera bakana.*

*2.- Haurren eta nerabeen interes gorena, haien eskubideen babesari eta eskubide horien garapenaren bermea beste edozein interes legezkoaren gainetik egongo dira.”*

Azken batean, erakunde honen ustez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Debako Oilur zentroaren funtzionamenduko lehen hilabeteetan izandako esku-hartzea ez da zuzena izan, indarrean dagoen araudiaren arabera zentro horretan egoitza eman zaien adingabeei onartu zaizkien eskubideen babesari dagokionez. Aurreko paragrafoetan egin dugun analisia ikusirik, iruditzen zaigu, orain arte hartu diren erabakiak okerrak izan direla Oilur zentrori bidali diren haurrekin jarduteko. Aldundiaren arabera, aldatu beharreko jarrera okerra zuten haiek. Jarrera arazoak dituzten bertako adingabeekin esku-hartzeko araudiak eta programek eskaintzen dituzten lanabesek eta jardun motek esku-hartze eraginkorrak bateratzen dituzte hezkuntzarako eta entzun diezaieten duten eskubideari dagokionez. Horrekin bat, helburua ez da “nerabeen nahiak betetzea”, beren garapenean lagundu eta gizarteratu eta lan munduan egoki txertatzeko izan ditzaketen arazoak bideratzea baizik, hala baitio indarrean dagoen araudiak.

Erreklamazioaren helburua eta aztertutako informazioa ikusita eta aurreko ataletan azaldutako gogoetak kontuan harturik, honakoa jakinarazten dizugu:



## Ondorioak

1. Ontzat jo behar da jarrera arazoak eta arazo nabarmenak dituzten adingabeentzako tratamendu egokia lortzeko baliabidea sortzea.
2. Aitzitik, Debako Oilur zentroa kudeatzeko baldintzak eta orain arte garatu den programa berezituak ez dituzte egoki errespetatu Haurren eta Nerabeen laguntza eta babeserako otsailaren 18ko 3/2005 euskal Legeak adingabeei onartzen dizkien eskubideak. Hezkuntzarako eta entzun diezaieten duten eskubidea bereziki. Era berean, ez dira bete gizarte babesik gabeko egoeran dauden haurren eta nerabeen egoitza-harrera arautzen duen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuko ezarpenak. Ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiak ahal bezain azkar egokitu behar du programa, arauen ezarpenekin bat etor dadin.
3. Gipuzkoako Foru Aldundiaren tutoretzapean dauden adingabeek hezkuntza neurriak behar dituzte, baita hezkuntzako langileentzako zein egoitzan dauden adingabeentzako berme egokiak dituzten programa bereziak abiatzea ere. Jarrera arazoak sortzen dituzten haur eta nerabeekin egindako esku-hartzea bakoitzaren ezaugarri eta beharrezanekin bat etorri behar da, ordenamendu juridikoan jaso diren eskubide eta ezarpenekin bat. Adingabearen jarrera disruptiboa eragiten duten faktoreak azkar gainditzea bilatu behar da, eta une oro, herritarren segurtasuna eta lasaitasuna bermatu behar da.
4. Ildo beretik, Gipuzkoako udalerri batzuetan bakarrik dauden eta Oilur zentroan zeuden atzerriko adingabeek eragindako gertakarien larritasunak, kasu bakoitzean jazo diren baldintzen azterketa zorrotzaren beharra dakar. Esparruan eskumenak dituzten erakunde guztien esku-hartze bateratua eta koordinatua behar da, kasu bakoitzari egoki zaion tratamendua emateko esku-hartze zehatzak abiatzeko, adingabearen interes nagusia eta indarrean dagoen araudian hurrei eta nerabeei onartzen zaizkien eskubideak errespetatuz eta, aldi berean, Gipuzkoako herritarren segurtasuna eta eskubideak babestuz. Nolanahi ere, onartezina da Gipuzkoan eskumena duen administrazioaren arreta eta kontrolatik kanpo dauden adingabeak egotea, Gipuzkoako Foru Aldundia da administrazio hori kasu honetan. Izan ere, azken hori ordenamendu juridikoan ezarritakoaren aurkakoa da.

